

Eskola-materiala eta ekipo informatikoak erosteko 2023ko diru-laguntzak

Ohiko galderak - FAQs

1. Zein dira diru-laguntza jaso dezaketen eskolako materialak?

Laguntzak jaso ditzaketen eskolako materialtzat hartuko dira ondorengo elementuak:

- Idazteko materialak eta suntsikorak: arkatzak, boligrafoak, ezabatzeko elementuak, klipak, txorroskiloak, erregelak, eskuairak, kartaboiak, angelu-garraigailuak, rotringak, koadernoak, folioak eta informatikako kontsumigarriak.
- Material ez suntsikorra: paper zorroak, sailkagailuak, estutxeak, kalkulagailuak, konpasak, eskola-motxilak, bereizgailuak, hiztegiak eta testuliburuak.
- Eskola-jarduerarako beharrezkoak diren jantziak: eskolako mantalak eta gorputz hezkuntzarako beharrezko kirol-arropa eta -oinetakoak.
- Betaurrekoak edo lentillak (lente zuzentzaileak).

2. Zein dira diru-laguntza jaso dezaketen ekipo informatikoak?

Ordenagailu eramangarriak izan daitezke edo mahai gaineko ordenagailuak.

3. Eskola-materiala erosteko, zein izango da laguntzen zenbatekoa?

Laguntzak 140, 120, 100, 70 edo 80 €-koak izan daitezke gehienez HAUR BAKOITZEKO, familia-unitateko kide guztien errentan oinarrituta.

Familiek urtero jaso ahal izango dituzte eskola-materiala erosteko laguntzak.

Eskola-materiala						
HAUR BAKOITZEKO						
1.tartea	2.tartea		3.tartea		4.tartea	
Berezia	Arrunta	Familia ugaria	Arrunta	Familia ugaria	Arrunta	Familia ugaria
12.100 € arte	19.950 € arte	29.950 € arte	27.000 € arte	37.000 € arte	40.000 € arte	50.000 € arte
140 €	120 €	120 €	100 €	100 €	70 €	80 €

4. Ekipo informatikoak erosteko, zein izango da laguntzen zenbatekoa?

Laguntzak 350, 200, 150, 100 edo 125 €-koak izan daitezke gehienez FAMILIAKO, familia-unitateko kide guztien errentan oinarrituta.

Familiek bi urtean behin (urte batean bai eta bestean ez) jaso ahal izango dituzte ekipo informatikoak erosteko laguntzak.

Ekipo informatikoak erosteko						
FAMILIA-UNITATE BAKOITZEKO						
1.tartea	2.tartea		3.tartea		4.tartea	
Berezia	Arrunta	Familia ugaria	Arrunta	Familia ugaria	Arrunta	Familia ugaria
12.100 € arte	19.950 € arte	29.950 € arte	27.000 € arte	37.000 € arte	40.000 € arte	50.000 € arte
350 €	200 €	200 €	150 €	150 €	100 €	125 €

5. Zer-nolako kirol-arropa mota hartuko da aintzat laguntzetan?

Heziketa Fisikoa egiteko baliagarria den edozein, eta ez dadila kirol bakarrerako espezifikoa izan.

6. Hiztegiak ere laguntzak jaso ditzaketen eskolako materialtzat hartzen al dira?

Bai. Hiztegiak ikasketarako ezinbesteko tresna dira eta beraz testuliburutzat jotzen dira.

7. Non erosi behar dira eskola-materiala eta ekipo informatikoak?

Eskola-materiala Legazpiko dendetan eta ekipo informatikoak, berriz, Legazpitik kanpo, baina Gipuzkoako Lurralde Historikoko dendetan.

8. On-line egindako erosketen fakturak onartuko dira?

Bai, fakturan adierazten den helbidea Legazpikoa bada eskola-materialeko erosketetan, eta Gipuzkoako Lurralde Historikokoa ekipo informatikoetan.

9. Ikasturteko edozein unean egindako eskola-materialaren eta ekipo informatikoen erosketen fakturak aurkez ditzaket?

Ez, fakturek **2023ko** uztailaren 1etik **urriaren 10era** bitartean egindako erosketak justifikatu behar dituzte.

10. Seme-alaba bat baino gehiago badut, horietako bakoitzarentzat eskaera bat egin behar al dut ala denentzat bakarra?

Familia bakoitzak eskaera BAKAR bat aurkeztuko du, eta bertan laguntza jasotzeko eskubidea duten familia-unitateko adingabe guztiak sartuko dira.

11. Laguntza jasotzeko aukerarik badute beste herrietan eskolatutako adin txikikoek?

Bai, beti ere Legazpin erroldatuta badaude.

12. Laguntza jasotzeko aukerarik badute adin txikikoak dituzten famili guztiek?

Ez. Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko etapetan (Batxilergoa eta Lanbide Heziketako Erdi mailan) eskolatutako adin txikikoei soilik zuzenduta dago laguntza.

13. Nire semea/alaba Goi-mailako lanbide-heziketako ziklo bat egiten ari da, aukerarik ba al du?

Ez. Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko etapetan (Batxilergoa eta Lanbide Heziketako erdi-mailako zikloak) eskolatutako adin txikikoei soilik zuzenduta dago laguntza.

14. Zein dira kontuan hartzen diren familiako diru-sarrerak?

2022ko urte fiskalean, familia-unitateko kide guztiek lortutako diru-sarrerak hartuko dira kontuan. **Familiaren Urteko Errenta kalkulatzeko formula hau erabiliko da: Zerga-Oinarri Orokorra + Aurrezkiaren Zerga Oinarria + Errenta salbuetsiak - Murrizpena batera tributatzeagatik.**

15. Zeri deitzen zaio Familia-unitatea?

Familia-unitatea deitzen da Legazpiko Biztanleen Udal Erroldan orri berean ageri diren kideek osatzen dutena, laguntzaren eskaera egunean.

16. Eskaerarekin batera Errenta Aitorpena aurkeztu behar al da?

Legazpiko Udalak beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Errenta Aitorpena Euskal Autonomia Erkidegoan egin ez bada, jasotako diru-sarrerak aitortzen dituen dokumentazioa gehitu beharko da.

17. Egindako gastuarekiko proportzionala izango al da laguntza?

Ez. Diru-laguntzak gehienez 140, 120, 100, 70 edo 80 eurokoak izango dira seme-alaba bakoitzeko, eskola-materiala erosteko; eta 350, 200, 150, 100 edo 125 eurokoak familia bakoitzeko, ekipo informatikoak erosteko; hori guztia familia-unitateko kide guztien errentan oinarrituta.

Familiak urtero jaso ahal izango dituzte eskola-materiala erosteko laguntzak, eta bi urtean behin (urte batean bai eta bestean ez) ekipo informatikoak erosteko laguntzak.

18. Fakturak: noiz entregatu behar dira eta nola?

Laguntza jaso ahal izateko, eskaerarekin batera **2023ko uztailaren 1etik urriaren 10era** bitartean egindako gastuen fakturak aurkeztu behar dira. Fakturak eskaera egingo duen pertsonaren izenean egongo dira.

19. Zer da faktura sinplifikatua?

Legezko faktura bat da, faktura konbentzionalak baino informazio gutxiago duena baina kasu honetan baliagarria. Kasu jakin batzuetan egin daiteke (adibidez, 400 € baino gutxiagoko salmentetan) baina ezinbestez adierazi behar dute zenbakia, data, IFZ eta egin duenaren izena eta bi abizenak edo enpresaren izena, erositako ondasun edota zerbitzuen identifikazioa, zerga-tasa eta zenbatekoa guztira.

20. Diruz lagundu daitekeen materialaren faktura guztiak lortu behar al ditut?

Ez. Nahikoa da errenta-tartearen arabera dagozkion laguntzaren gehieneko zenbatekoa batzen duten fakturak aurkeztea: 140, 120, 100, 70 edo 80 € arte seme-alaba bakoitzeko eskola-materiala erosteko, eta 350, 200, 150, 100 edo 125 € arte familia bakoitzeko informatika-ekipoak erosteko.

21. Behin eskaerak eginda, nola jakingo dut laguntza eman zaidan ala ez?

Jakinarazpen bat jasoko duzu, emandako laguntzaren berri emanez.